Areatzako Udala
Ayuntamiento de Areatza

| COVID-19ak EKARRITAKO KALTE EKONOMIKOAK GUTXITZEKO AREATZAKO HERRITARREI ETA FAMILIEI ZUZENDURIKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK | BASES REGULADORAS DE LAS SUBVENCIONES PARA AYUDAR A PERSONAS Y FAMILIAS DE AREATZA A MITIGAR LOS EFECTOS ECONÓMICOS PROVOCADOS POR LA COVID-19 |
|---|---|
| COVID-19aren hedapen azkarraren eraginez, aurrekaririk gabeko osasun-alerta bat daukagu, kaltetutako pertsona kopuru altuarekin; horri aurre egiteko, transmisioaren aurkako borroka etengabeari ekin behar izan diogu, pertsonen osasunean eragin nabarmena baitauka. | La rápida propagación de la COVID-19 está generando una situación de alerta sanitaria sin precedentes, con un número elevado de personas afectadas que ha provocado una incesante lucha contra su transmisión, en tanto en cuanto afecta de manera relevante a la salud de las personas. |
| Lehentasuna COVID-19aren hedapena eta pertsonen osasunaren aurkako kaltea mugatzea bada ere, krisi honen ondorioak osasun-arlokoak ez diren beste esparru batzuetan eragina izaten ari dira; esaterako, Areatzako ekonomian. | Si bien la prioridad se centra en limitar la propagación del COVID-19 y en la salud de las personas, las consecuencias de esta crisis están teniendo incidencia en otros ámbitos no estrictamente sanitarios, por ejemplo la economía de Areatza. |
| Epidemiari eusteko faseak igaro ondoren, udalerriko sektore ekonomiko denek beren jarduerari ekingo diote, apurka-apurka. | Una vez que han transcurrido las fases de contención de la epidemia, los diferentes sectores económicos del municipio iniciarán progresivamente su actividad. |
| Hori dela eta, Areatzako Udalak beharrezkotzat jotzen du udalerriko familietan eta sektore ekonomikoetan sor daitezkeen behar ekonomikoei erantzutea, laguntza emanez. | Por ello, el Ayuntamiento de Areatza considera necesario atender las necesidades económicas que puedan surgir en familias del municipio, así como en los distintos sectores económicos, mediante las siguientes ayudas. |
| **1. artikulua. Xedea.** | **Artículo 1. Objeto.** |
| Deialdi honen xedea da COVID-19ak eragindako langabezia-egoeretan laguntzea, izan enpresan ABEEE bat aplikatu delako edo behin betiko kaleratze bat eman delako, alarma-egoera indarrean sartzeak ekarri dituen zailtasun ekonomikoei aurre egin ahal izan diezaieten. | Mediante estas ayudas se pretende ayudar a las personas en situación de desempleo generadas por la crisis de COVID-19, bien por la aplicación de un ERTE en la empresa o bien por un despido definitivo, a mitigar las dificultades económicas que sufren como consecuencia de la entrada en vigor del estado de alarma. |
| **2. artikulua.- Onuradunak.** | **Artículo 2. Personas beneficiarias.** |
| Laguntza hauek jaso ahalko dituzte 2020ko martxoaren 14tik ekainaren 30era bitartean lan-kontratu bat izatetik langabezia-egoeran egotera igaro direnek, langabezian egoteko arrazoia COVID-19a denean, izan enpresan | Podrán acceder a las ayudas aquellas personas que entre el 14 de marzo de 2020 y el 30 de junio hayan pasado de tener un contrato de trabajo a una situación de desempleo generada por la crisis de COVID- |


Gudarien Plaza, 7-.48143 AREATZA (Bizkaia)
Tel. 94 673 90 10- Fax 94 631 71 65
areatzakoudala.areatza@bizkaia.org

| | |
|---|---|
| ABEEE bat aplikatu delako edo behin betiko kaleratze bat eman delako. Horrez gain, baldintza hauek bete beharko dituzte:<br>− Areatzan erroldatuta egotea eta bertan izatea ohiko etxebizitza (2020ko martxoaren 14an bertan egon behar ziren erroldatuta).<br>− Eskatzailea langabezia-egoeran edo Aldi Baterako Enplegu Erregulazio Espediente (ABEEE) batean egotea edo egon izana, martxoaren 14tik aurrera, COVID-19aren eraginez.<br>− Martxoaren 14a baino lehen lanaldi oso edo partzialeko lan-kontratu bat izatea.<br>− Hileroko diru-sarrerak, langabezia-saria barne, pertsonako 1.100 euro garbi baino txikiagoak izatea, edo 2.200 euro garbi baino txikiagoak, bizikidetza-unitateko.<br>− 2019an, onuradunaren urteko diru-sarrera osoak ez izatea Lanbide arteko Gutxieneko Soldata halako 2,5 baino handiagoak (31.500 euro gordin) edo 63.000 euro baino gehiagokoak, bizikidetza-unitateko. | 19, bien por la aplicación de un ERTE en la empresa o bien porun despido definitivo y que cumplan las siguientes condiciones:<br>− Estar empadronadas y tener la residencia habitual en el municipio de Areatza (empadronadas a fecha de 14 de marzo de 2020).<br>− Que la persona solicitante haya estado o esté en situación de desempleo o en Expediente de Regulación Temporal de Empleo (ERTE) a partir del 14 de marzo, en ambos casos como consecuencia del COVID-19.<br>− Tener un contrato de trabajo a tiempo parcial o completo el día anterior al 14 de marzo.<br>− Tener unos ingresos mensuales, incluido el subsidio por desempleo, inferiores a 1.100 euros netos por persona o 2.200 euros netos por unidad de convivencia.<br>− Que la persona beneficiaria no haya tenido unos ingresos totales anuales durante el año 2019 superiores a 2,5 veces el Salario Mínimo Interprofesional (31.500 euros brutos) o 63.000 euros brutos en el conjunto de la unidad de convivencia. |
| **3. artikulua.- Dirulaguntzaren izaera eta aldia.** | **Artículo 3. Naturaleza de la ayuda y período.** |
| COVID-19aren eraginez langabezian geratu diren pertsonentzako laguntzak dira, eta helburu dute kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen eta familien oinarrizko beharrizanak betetzen direla bermatzea.<br><br>Laguntzen xedea da COVID-19aren eraginez langabezian geratu diren pertsonei laguntzea; ondorioz, laguntzen indarraldiak 2020ko apirila, maiatza eta ekaina hartuko ditu barne. | Se trata de ayudas a personas en situación de desempleo generada por la crisis de COVID-19 que tienen como objeto garantizar la cobertura de las necesidades básicas de las personas y familias en esta situación de vulnerabilidad.<br>Estas ayudas tienen por objeto ayudar a las personas en situación de desempleo generada por la crisis de COVID-19, por lo que el periodo de las ayudas será comprendido en los meses de abril, mayo y junio de 2020. |
| **4. artikulua.- Laguntzen zenbatekoa.** | **Artículo 4. Cuantía de las ayudas** |
| Xedapen honetan jasotako onurak itzuli behar ez diren dirulaguntzak dira, diruz lagun daitezkeen gertaera eta gastuetarako, | Los beneficios contenidos en la presente disposición son subvenciones no reintegrables por los hechos y gastos subvencionables |



Gudarien Plaza, 7-.48143 AREATZA (Bizkaia)
Tel. 94 673 90 10- Fax 94 631 71 65
areatzakoudala.areatza@bizkaia.org

| | |
|---|---|
| ezarritako eran.<br><br>Hauek dira laguntzen zenbatekoak:<br><br>• Langabezia-saria eta onuradun bakoitzak jasotzen dituen gainerako diru-sarrerak bere soldata mugara arte osatuko dira, eta, gehienez ere, hilean 1.100 eurora iritsi arte.<br><br>• Eskatzaileek seme-alaba adingaberik badute euren kargura, 150 euroko laguntza gehigarria ezarriko da seme-alaba bakoitzeko (gehienez ere hilean 300 euro familia-unitateko).<br><br>Gurasoak banatuta badaude, seme-alabekin bizi den gurasoa izango da laguntzaren osagarriak jasotzen dituena, eskaera egin badu. Zaintza partekatua duten familietan, eskatzaileari aurreko paragrafoan aipatutako osagarriaren % 50 ordainduko zaio.<br><br>Langabezia-saria osatzeko zenbateko hori, lanaldi osoa izatetik langabeziara igaro diren eskatzaileei emango zaie. Lanaldia murriztua bazen, zenbatekoa hainbanatu egingo da.<br><br>Seme-alabei dagokien osagarria berdin mantenduko da, aurreko laneko lanaldia edonolakoa izanik ere.<br><br>Bizikidetza-unitate bakoitzeko 2 pertsonak jaso ahalko dute laguntza, gehienez ere. | establecidos.<br><br>Se establecen las siguientes cuantías de ayudas:<br><br>• Se complementará el subsidio de desempleo y otros ingresos obtenidos por cada persona beneficiaria hasta completar el salario, y, en todo caso, sin superar el máximo de 1.100 euros mensuales.<br><br>• En el caso de que las personas solicitantes de esta ayuda cuenten con hijos/as menores a su cargo, se establecerá una ayuda adicional de 150 euros mensuales por cada hijo/a, con un máximo de 300 euros por unidad familiar.<br><br>Si los/as progenitores están separados/as, la persona solicitante el progenitor que haya estado conviviendo con los/as hijos/as será la persona perceptora del complemento de la ayuda. En familias donde la custodia sea compartida, se le abonará a la persona solicitante el 50 % del complemento mencionado en el párrafo anterior.<br><br>Este complemento del desempleo se daría en el caso de contratos a jornada completa que hayan pasado al desempleo. Si el contrato era a jornada reducida se prorratearía su cantidad.<br><br>El complemento por hijos/as se mantendrá igual, independientemente de la jornada de trabajo anterior.<br><br>Se podrá subvencionar hasta un máximo de 2 personas por unidad de convivencia. |
| **5. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea.** | **Artículo 5. Plazo de presentación de solicitudes.** |
| Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eskaerak aurkezteko epea, eta argitaratzen denetik 30 egun natural igarotzen direnean amaituko da. | El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente a la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia y finalizará a los 30 días naturales desde su publicación. |



Gudarien Plaza, 7-.48143 AREATZA (Bizkaia)
Tel. 94 673 90 10- Fax 94 631 71 65
areatzakoudala.areatza@bizkaia.org

| | |
|---|---|
| **6. artikulua. Gehieneko eskaera-kopurua.** | **Artículo 6. Máximo de solicitudes.** |
| Bizikidetza-unitate bakoitzak eskaera bakar bat aurkeztu ahalko du. Bizikidetza-unitate bereko bi pertsonak laguntza eskatu nahi badute, euren datuak eskaera berean jaso beharko dituzte. | Cada unidad de convivencia podrá entregar una única solicitud. En caso de que dos personas de la misma unidad de convivencia deseen solicitar la ayuda, deberán anotar sus datos en la misma solicitud. |
| **7. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa.** | **Artículo 7. Documentación que debe presentarse con la solicitud.** |
| Eskaeraren unean:<br>− Eskatzaileen NANaren edo AIZren fotokopia.<br>− Familia-liburua.<br>− ABEEEren justifikazio-dokumentazioa.<br>− Aldi baterako kontratua berritu ezean 4. artikuluan aipatutako epean, berrituko ez denaren oharra.<br>− SEPE erakundearen ziurtagiria, jasotzen diren prestazioei buruzkoa edo jasotzen ez direla dioena.<br>− Lanbideren ziurtagiria, jasotzen diren prestazioei buruzkoa edo jasotzen ez direla dioena.<br>− Bizikidetza-unitatean laguntza-eskaeran adierazitako hilabeteetan jasotzen diren bestelako diru-sarreren jakinarazpena.<br>− Bizikidetza-unitateko pertsonek aurkeztutako azkeneko PFEZren aitorpena.<br>− Eskaera beteta, oinarri arautzaile hauekin batera atxikitako ereduari jarraikiz.<br><br>-Zaintza partekatuaren kasuan, zaintza hori arautzen duen hitzarmena aurkeztu beharko da. | En el momento de la solicitud:<br>− Fotocopia del DNI/NIE de las personas solicitantes.<br>− Libro de familia.<br>− Documentación justificativa del ERTE<br>− En caso de no renovación de contrato temporal durante el período mencionado en el Art. 4, documento de aviso de no renovación.<br>− Certificado de SEPE de prestaciones que se perciben o certificado de no percibirlas.<br>− Certificado de Lanbide de prestaciones que se perciben o certificado de no percibirlas.<br>− Notificación de cualquier otro tipo de ingresos que se perciban en la unidad de convivencia en los meses por los que se solicita la ayuda.<br>− Última declaración de I.R.P.F. presentada de las personas de la unidad de convivencia.<br>− Solicitud rellenada de acuerdo con el modelo que acompaña estas bases reguladoras.<br><br>-En caso de custodia compartida, se deberá presentar el convenio regulador de la custodia compartida. |
| **8. artikulua. Dirulaguntzaren justifikazioa.** | **Artículo 8. Justificación de la subvención.** |
| Baldintzetako bat urratzekotan, onuradunak jasotako dirulaguntza itzuli beharko dio Udalari, legean ezarritako itzulera-prozedurari jarraikiz. | En caso de incumplimiento de alguno de los requisitos, la persona beneficiaria tendrá que devolver al ayuntamiento la subvención recibida mediante el procedimiento de reintegro legalmente establecido. |
| **9. artikulua. Laguntzak pilatzea.** | **Artículo 9. Acumulación de ayudas.** |



Gudarien Plaza, 7-.48143 AREATZA (Bizkaia)
Tel. 94 673 90 10- Fax 94 631 71 65
areatzakoudala.areatza@bizkaia.org

| | |
|---|---|
| Esleitutako laguntzak bateragarriak dira edozein erakunde publiko edo pribatuk emandakoekin, araudi honetan ezarritako gehieneko zenbatekoetara arte.<br><br>Beste edozein erakunde publiko edo pribaturen eskutik jasotako laguntzen berri eman beharko dio onuradunak Udalari, laguntzaren zenbatekoa birdoitze aldera. | Las ayudas concedidas son compatibles con las proporcionadas por cualquier organismo público o privado, hasta los importes máximos dispuestos en esta regulación.<br><br>La persona beneficiaria queda obligada a comunicar al ayuntamiento las ayudas recibidas por cualquier otro organismo público o privado de cara a reajustar la cuantía de la ayuda. |
| **10. artikulua. Laguntzen publizitatea.** | **Artículo 10. Publicidad de las ayudas.** |
| Oinarri arautzaile hauekin bat esleitutako laguntzak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Areatzako Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira. | Las ayudas concedidas de acuerdo con estas bases reguladoras serán publicadas en el Boletín Oficial de Bizkaia y en la sede electrónica del Ayuntamiento de Areatza. |
| **11. artikulua. Dirulaguntza esleitzeko prozedura.** | **Artículo 11. Procedimiento para conceder la subvención** |
| Dirulaguntza hauen esleipena zuzena eta lehia askeko erregimenekoa izango da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluko 2. ataleko c) hizkian aurreikusitako interes publiko, sozial, ekonomiko eta humanitarioko inguruabar eta arrazoiak betetzen baitira, laguntzen deialdia zailtzen dutenak eta laguntzak modu honetan esleitzea justifikatzen dutenak.<br><br>Lehia askeko dirulaguntzen esleipena COVID-19aren pandemiak eragindako premia- eta alarma-egoerak justifikatzen du, baita aurkeztutako eskaeren arteko lehentasuna zehaztea ahalbidetuko duten balorazio-irizpide objektibo eta homogeneoak ezartzeko zailtasun eta bidegabekeriak ere. Herritarren interes orokorra babestu eta jarduera ekonomikoa sustatzen duten pertsonak eta enpresak zaindu behar dira, pandemiak ekarri duen krisi ekonomikoaren eraginak arintzeko eta behin osasun-alarmaren egoera kontrolatzea lortzean Areatzako udalerriaren suspertze ekonomikoa lortzeko, ahalik eta azkarren. | La concesión de estas subvenciones será directa y en régimen de libre concurrencia, ya que concurren las circunstancias singulares y razones de interés público, social, económico y humanitario que prevé el artículo 22 apartado 2 letra c) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, que dificultan la convocatoria de ayudas y justifican otorgar estas ayudas de este modo.<br><br>La concesión de subvenciones de libre concurrencia se justifica base a la situación de urgencia y estado de alarma producidos por la pandemia COVID-19, así como por la dificultad e iniquidad de establecer criterios objetivos y homogéneos de valoración que permitan establecer una prelación entre las solicitudes presentadas. Se trata de proteger el interés general de la ciudadanía y apoyar a personas y empresas que impulsan la actividad económica para mitigar así los efectos producidos por la crisis económica que ha acarreado la pandemia y lograr que, una vez controlada la situación de alarma sanitaria, la reactivación económica en el municipio de Areatza se produzca lo antes posible. |


Gudarien Plaza, 7-.48143 AREATZA (Bizkaia)
Tel. 94 673 90 10- Fax 94 631 71 65
areatzakoudala.areatza@bizkaia.org

Areatzako Udala
Ayuntamiento de Areatza

| | |
|---|---|
| **12. artikulua. Esleipen-prozedura agindu, izapidetu eta ebazteko organo eskudunak.** | **Artículo 12. Órganos competentes para ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión.** |
| Eskaerak A Udaleko langile publikoek izapidetuko dituzte, eta Alkatetzak ebatziko ditu espresuki. | Las solicitudes serán tramitadas por las empleadas y empleados públicos del Ayuntamiento de Areatza y serán expresamente resueltas por la Alcaldía. |
| **13. artikulua. Ebazpen-epea.** | **Artículo 13. Plazo de resolución** |
| Espedienteak ebazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, eskaera-epea amaitzen denetik. | El plazo máximo de resolución de los expedientes será de dos meses desde la finalización del plazo de solicitudes. |
| **Azken xedapena** | **Disposición final** |
| Dirulaguntza honetara bideratutako zenbateko 60.000 eurokoa da, guztira, 2020ko aurrekontuko partida honen kargura:<br>231 48000 "Familientzako Dirulaguntzak COVID-19"<br>Dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten eskaerek banatzeke dagoen aurreikusitako zenbatekoa gainditzen badute, Areatzako Udalak zenbatekoa 20.000 €-rarte handitu ahal izango du, baldin eta kreditua badago | El importe total destinado a la presente subvención es de 60.000 euros con cargo a la siguiente partida presupuestaria de 2020:<br>231 48000 "Familientzako Dirulaguntzak COVID-19"<br>Si las solicitudes que cumplen los requisitos para resultar beneficiarias de la subvención superan la cantidad prevista para repartir entre ellas, el Ayuntamiento de Areatza podrá ampliar el importe hasta 20.000€, siempre que exista disponibilidad de crédito. |


Gudarien Plaza, 7-.48143 AREATZA (Bizkaia)
Tel. 94 673 90 10- Fax 94 631 71 65
areatzakoudala.areatza@bizkaia.org